



Hezkuntza Bereziko Hezitzaileak

Haur Hezkuntza edo Gizarte Integrazioko Goi-mailako prestakuntza-zikloak

- Data interesgarri batzuk:
 - **Maiatzak 7 eta 10 artean:** EHAAn argitaratuko da behar den Dekretua.
 - **Maiatzaren 24tik 28ra:** matrikulazio epea zabalduko da institutuetan.
 - **Ekainaren 2. hamabostaldian:** Azterketen ohiko deialdia.
 - **Irailaren 2. hamabostaldian:** azterketen ez-ohiko deialdia.
- Matrikulatzeko eskatuko diren baldintzak:
 - 20 urte beteta izatea.
 - 2 urteko lan esperientzia matrikulatuko zareten arloan **edo** egingo duzuen zikloarekin erlazionatuta dagoen titulu akademiko bat (LH1 nahikoa da).

Ordezkoek lanean jarraitzeko akreditatu beharko diren baldintzen aurkezpena

- Eskatuko diren baldintzak:
 - Sarrera zuzena duten pertsoneri eskatuko zaie: Zikloaren %50a gaindituta izatea, baina praktiken modulua kenduz. Adibidez: Gizarte Integrazioan guztira 1.509 ordu daude. Honen %50a 754,5 ordu dira. Hemendik kentzen baditugu praktiken moduluko orduak, hau da 600, geratzen direnak dira aurkeztu beharko direnak, hau da 154,5 ordu. (Administrazioak suposatuko du ordezkoen zerrendan dauden pertsona guztiek gutxienez urte bateko lan esperientzia dutela).
 - Sarrera zuzena ez duten pertsoneri eskatuko zaie: Zikloak egiteko sarrera froga gaindituta izatea eta matrikulatuta egotea.
- Baldintzak aurkezteko epeak:
 - Ohiko epea: Birbaremazioarekin batera. Maiatzaren 2. hamabostaldian.
 - Ez-ohiko epea: Abuztuaren azken astean eta Eibarreko esleipenaren egunean.
 - Epe irekian: Datorren ikasturteko irailaren aurretik, edozein momentutan.
- Non eskatu beharko diren ziurtagiriak:
 - Zikloak egin diren institutuetan.
- Non aurkeztu beharko diren ziurtagiriak:
 - Lurralde bakoitzeko ordezkari-tzetan.



Hezitzaileen ordezkapen zerrenden aldaketak

Dakizuenez, CCOO sartutako helegite baten ondorioz, eta behin behineko epaiaren arabera, HE2 ez da egokia gure sektoreko hezitzaile kategorientzat (hezitzaileak, fisioterapeutak, laneko terapeutak, gizarte laguntzaileak, transkriptorea eta materialaren egokitzailea). Nahiz eta epaia behin behinekoa izan eta Hezkuntza Sailak horren kontrako helegitea sartu, CCOO sindikatuak betaraztea eskatu du eta epaileak arrazoia eman dio.

Erabaki honen ondorioak zuzenak dira eta, gure ustez, kezkarriak; alde batetik 2004ko urtarrilean osatutako ordezkapen zerrenda bertan behera gelditzea eta honen ondorioz apuntatutako jendea kanporatua izatea, eta bestetik HE 1 duten pertsonak euskarazko ordezkapenak betetzeko deituak izango direla, zerrendetatik kanpo gelditu nahi ez badute. uko ezin egin ahal izango dutelarik.

CCOO sindikatuak hizkuntz eskakizunaren inguruan onartuta eta adostutakoaren kontrako erasoaren ondorioak ditugu hauek.

STEE-EILASetik berriro ere gure sektorean, HE1 ez dela egokia azpimarratuz, gure lana betetzeko dagokion HE baten alde lanean jarraituko dugula adierazi nahi dizuegu.

Eta azkenean, sinatu dugu hitzarmena

Atzo, sindikatu guztion sinadura lortuta, Hezkuntza Sailako Lan-Legepeko Irakasle eta Hezitzaileentzako lehenengo hitzarmen kolektiboa indarrean sartu zen. Dakizuenez, STEE-EILASek urte birako hitzarmena eskatu zuen, negoziazio hobe lortzeko asmoarekin. Baina beste sindikatu guztiek hitzarmen honen jaiotza bizkortu zuten, bilera gutxitan ixteko eskaeraz, 2003rako egindako akordio batez.

Horrek paradoxa bat sortzen du: hitzarmenaren sinadura gauzatzen dela bere iraunaldiaren bukaeratik lau hilabete pasa ostean. Honek ez da oztopo bat lehenbailehen gai garrantzitsu batzuk negoziatzen hasteko. Adibidez: urte sabatikoak, erretiroa txanda-kontratuaren bidez, fisioterapeuten ikasturte hasierako esleipenak, langileon egutegiak eta ordutegiak... Datorren hitzarmenaren negoziazioak ere ez ditugu ahazten, eta dagoeneko Batzorde Parekidean mahaigaineratu dugu eta eskuen artean ditugun gaiekin bukatu bezain laster jo ta ke bultzatuko ditugu.

Gasteizen, 2003ko apirilaren 26an